

Urrea erru

Ezin asmatuzkoak dira diruaren bideak, eta euroari jarraiki, Amador Fernandez-Savaterrek Christian Maraziri egindako elkarrizketa batera iritsi naiz; gauza asko ditu arretaz irakurtzekoak, baina ideia bat gustatu zait batez ere, hona dakart neure hitzekin: zorpetze orokorra jendea arrastoa sartzeko modua ere bada, diziplina ezartzeko, ordena jartzeko, erruduntasun sentimenduan bermatuta.

«Orain arte izandako moralaren genealogista horiek, imajinatu al dute, urrutetik bada ere, adibidez, *errua* (*Schuld*) mora-

laren kontzeptu nagusia *zorrak eduki* (*Schulden*) kontzeptu guztiz materialek datorrela?», egiten zuen galdera Nietzschek, *Moralaren genealogia* liburuan, Xabier Mendiguren Bereziarturen itzulpenean. Eta pentsamendu horri segituz, bigarren tratatuaren *Errua, kontzientzia txarra* eta antzekoak izenburuari oharra egin zion itzultzaileak: «Alamanez *Schuld* hitzak aldi berean *errua* eta *zorra* esan nahi ditu. Gure Aita otoiitzeko *barkatu gure zorrak* (erruak) esamolde funtsezkoa da bere zentzu-bikoiztasunean bigarren tratatu honen eraikuntzan».



Jira
Xabier Gantzarain

Guk ere gure errudunei barkatzen diegunez gero, barkatu gure erruak; gaur, hemen, zein jainkorri ari gatzaiakio otoiitzean?

Durango III

Pasatu da. Badakigu zeintzuk izan diren libururik salduenak, diskorik sinatuenak. Honezkerok, baten batek esango du gutxiago falta dela datorren urteko azokarako, eta honezkerok, badakigu datorren urtean zuzendari berria izango duela. Kuriositateari eusten diotenek Gabonetarako gordeko dituzte Landakoko erosketak, eta besteok Olentzero datorrenarako diskoak markatuta edo liburuak irakurrita izango ditugu. Nik egundo ez diot kuriositateari eusten: erosi ditudan hiru liburuak hasi ditut, eta ez dakit zeinekin jarraitu. Akaso, hirurak uztea izango da onena; iraku-



Bira
Onitza Enbeita

rriko ditut astia dudanean. Aurten, gainera, ez ditudanez libururik salduenak erosi, elkarrizketatik kanpo geldituko naiz berdin-berdin. Azokako atean lagun musikari batekin topo egin nuen, eta berbertan hasi ginen ekoizpenaz, salduenez, krisiaz... eta berak esan zidan arazoa dela batzuek pastelaren erdia baino gehiago jaten dutela, eta horrek pastelaren zatirik gabe uzten dituela besteak. Saltoki guztiek ez dute tamaina bera: batzuetan jendetza biltzen da, eta besteetan, inor ez... Hausnarketa eginda, Euskal Herriko kulturaren iritzia kontuan hartzen zaien gizon-emakume askok liburu eta disko berberekin hitz egiten dutela konturatu nintzen. Batez ere abenduan. Arrazoia izango ote zuen nire lagun hark?

Zuzendaria:

Martxel Otamendi

Zuzendariordea:

Enekoitz Telleria

Edizio arduraduna:

Andoni Alvarez

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea: Bidera

publizitate

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

0712184059

Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date: 11/12/2011

Exempleaire: 2.630

Editore: Euskal Editorea S.L.

Directeur de publication:

Martxel Otamendi

Comission paritaire:

0712184059

Delegation Labourd:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxe Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

naifarroa@berria.info.

Tortura: proposamen bat

Jon-Mirena Landa
Zuzenbide Penaleko irakaslea

Atzo, abenduak 10, Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatu zen mundu osoan zehar. 1948ko Aldarrikapen Unibertsalaz geroztik, lehenengo aldiz gizateriaren historian, denon eskubideak, gizakiak izategatik ditugunak, aldarrikatu ziren. Aldarrikatu bai, gutxi ez dena baina, aldi berean, esan genezake aldarrikatu direla besterik gabe: alegia, ez daudela bermaturik, hainbat urraketak jarraitzen duela. Izan ere, eskubide horien aldeko borrokak, zuzenbidearen borrokak Rudolf von Ihering legegizon eta filosofo germaniar handiaren esanetan (Der Kampf ums Recht 1872), jarraitzen baitu, injustiziaren aurrean Justizia, Zuzenbidea hitz larritan, zimentatu nahian.

Aldarrikatutako eskubideen artean bada bat, tortura eta tratatu txarrek ez jasotzeko eskubidea, era absolutuan laster aldarrikatu zena: hau da, inor inoiz inolaz ere ezin da torturatua izan edo tratatu txarrek jaso, debekua absolutua da-eta. Hori, esaterako, ezin da ezta bizitza eskubideaz aldarrikatu: bestea hiltzea, gure gizarteetan, noski, guztiz debekatuta egon arren, batzuetan, ordea, legebidezko defentsan kasu, hiltzea baimenduta egon daitekeela. Tortura, ordea, inoiz ezin da justifikatu, ezta guda bezalako salbuespenezko kasuetan ere.

Eta nola dabil torturaren gaia gure Hego Euskal Herrian? Eta zehatz-mehatz tortura terrorismoa- ren aurkako borrokaren testuinguruan? *Portu eta Sarasola* izeneko kasuan Gipuzkoako Entzutegiak fundamenduak epaia (2010eko abenduaren 30ekoa) eman zuen, lehenengo aldiz Zigor Kode berriaren ikuspegitik, tortura delitua (art. 174

ZK) aplikatzen zuena, Guardia Zibilak egindako torturak zirela-eta hain justu ere. Epaia oso landuta eta lotuta utzi zituen frogatuztat jotzen ziren egitateak, gorenako auzitegiak berrikusteko orduan hura izango baitzen, zalantza barik, gairik garrantzitsuenetakoa. Eta hala suertatu zen, Auzitegi Gorenak, 2011ko azaroaren 2ko epai baten bitartez, ETAk ematen omen dituen torturak salatze orientabideei helduta, froga nahikorik ez omen zegoela ebatzi zuen, erruztatuen guztien delituen kondenak ezerez-tuz.

Estatu espainiarrean 1978ko Konstituzioa onartu zenez geroztik, 14 kondena irmo (alegia, behin betikoa, berrikusi ezin dena) besterik ez dira, ETAkide eta uestezko ETAkideen aurkako operazioetan izandako polizia torturak direla kausa. Hamalau soilik. Gainera kondenak arinak izan ziren, lehengo (1973koa) kodearen zigorrak arinak zirelako eta, dena dela, indulto ugari izan dira kondena kasu horietan (12 indulto behintzat izandako kondenatuen kasuetan). Azken kondenak, 2003ko azaroaren 13koak, Auzitegi Gorenaren epaiak, tortura kasu bat berresten du, Zornotzan 1980an! gertatu ziren egitate batzuen gainean. Hortaz, Estatu espainiarrean inoiz ez da aplikatu, ETArek borrokarren testuinguruan, 1995eko Kode penal berriaren tortura delitua, askoz zigor gogorragoak dakartzana (presoa-ldia eta erabateko desgaikuntza) bere 1973ko aurrekaria baino. Gainera, torturak onartu ziren hamalau kasuetan, zein egitate ari ziren epai-tzuen kontuan hartuz gero, gehienak 1979 eta 1984 bitartean gertatu ziren (14etatik, 13, alegia: denak Kepa Urrearen kasua izan ezik). Epai-leez gai honetan ezarri duten egia judiciala benetako egia balitz, horrek esan nahiko luke Hego Euskal Herriari tortura bakarrik 14 aldiz-edo gertatu dela, eta funtsean 1985etik

aurrera ez omen dago torturarik ETArek kontrako operazio edota atxiloketatzen.

Demokraziarik garatuenetan ere tortura dago, baina tortura maila «arrunta» izendatzeko esamolde teknikoak zera izaten da: tortura-kasu «isolatuak» gertatzen direla. Ez dago, beraz, Estatu bakar bat tortura kasurik gabe, zorritzarrez. Kasurik onenean tortura «isolatuak» topa ditzakegu. Estandar hori, ordea, ez da lortzen terrorismo-fenomeno edo Estatu-interesak auzitan jar-tzen diren fenomeno bati aurre egiten zaion lekuetan, orduan tentsioa igo eta horren ondorioz Estatuaren gehiegikeriak gora jotzen baitu. Bero, ba Estatu Espainiarrean 33 urte-etako kontraterrorismoaren kroni-kan 14 kondena ditugu eta duela 25 urte-edo ez dago batere kasu ofizia-lik. Hori sinistuko bagenu Espainia mundu osoan dagoen herrialderik onena izango litzateke torturarik ga-beko estandarrei begira!

Torturaren egoera kontrolatzen duten erakunde ofizialak (Nazio Ba-tuen Batzordeak, Europako Batzor-deak) eta ez-ofizialak (Amnesty In-ternational-ek, Human Rights Watch-ek), ukaezinezko prestigio-dunak, guztiak, urteetan behin eta berriro bat datoz: Espainian tortura dago eta 90eko hamarkadaz geroztik sistematikoa izan ez bada ere, ez da isolatua: «era isolatuz baina ohi-kotasun gehiagoz» gertatzen da.

Tortura, hortaz, ukaezina da, bar-ne sail guztietik, aitzitik, Espainiako-ek zein Euskadikoek, konstituzio ondorengoez eta aurrekoek, guz-tiek, beti ukatu badute ere.

Poliziak milaka dira eta, sinetsita nago, gaur gehiengo profesionala dela, torturaren jardunetik beste muturrean. Baina gutxi batzuek au-rerra daramate torturaren jarduna eta beraien gaineko aginte-katean beste batzuek hori estaltzen dute, Justizia-administrazioak, salbues-pen gutxi batzuekin (horra hor Gi-

puzkoako Entzutegiaren epaia kasu) beste aldera begiratzen ari dela. Eta kontuz beste aldera begir-atzeara ez da nire iritzia soilik: azken bi urteotan Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak bitan kondenatu du Espainia tortura bi kasu ez ikertzeagatik (San Argimi-ro Isasa kasua 2010ean eta Beristain kasua 2011n). Baina baita Konstitu-zio Auzitegiak (Majarenas kasua 63/2010 Epaian), Auzitegi Gorenak (483/2011 Epaian) edo Entzutegi Na-zionala berak (*Egunkaria*-ren ka-suan) gauza bera berretsitu dute: ale-gia, instruzioan ez dela ikertu nahi izaten eta horrela ez dagola modur-rik tortura frogatzeko.

Zer egin egoera honen aurrean? ETAk behin betiko jardun armatua utzi duela aldarrikatu ondoren eta Euskal Herrian bakiegintza beste fase batean murgildurik, gai honi heldu beharko zaio. Ez da posible izango egin den kalte itzela guztiz konpontzea. Justizia-administra-zioak egin ez duen lana ezin da orain guztiz ordeztu. Baina Justi-zia-lik galdatzen du arazoa aitortzeko. Nork eta Estatuak aitortu behar du hor egindako giza-eskubideen urra-keta argia. Hori bideratzeko meka-nismo extrajudizial bat sortu behar-ko litzateke, kasu zehatzen gainean ebaluazio independente bat aurrera eramateko. Zientzia mediku-foren-se lagun, egingarria izango litzate-ke eta beste herrialdeetan bada es-keramentua (Txileko Valech izeneko txostena kasu). Horrela torturatu-iei aukera emango litzaieke egia atera-tzeko eta era horretan kaltea hein-batean konpontzen hasteko. Eusko Jaurlaritzak esku artean duen De-kretotan, batzuek modu despekti-boan deitzen duten «beste bikti-men» izenoketan, horrelako meka-nismo bat sortzeko aurkera eduki badu, gure herriaren zati beltz hau argitzen hasteko.

Barne sailek hain garbi badute torturarik ez dela, zeri diote beldur?